

Ahozko jarduera bideratu adibideak

Ebete hizkuntza-zerbitzuak

2020ko irailean

	Zeregina	Ezaugarriak	Dinamika adibideak
Taldetxoetan elkarren artean	Adostasunak lortzea	Zeregin bat aurrera eramateko taldeko kideen artean, idatzi gabe, ados jarri behar dute. Adostu ondoren, eta zereginak horrela eskatzen badu, idatzi dezakete.	-Ariketa urrun -Ibilbide aldrebestua -Hitz debekatuak -Arkatza erdira
	Errepasoak egitea	Taldeka, kideen artean ahoz gai baten errepasoa egitea edo beste kideei errepasoa egiten laguntzea.	-Errepaso taula osatu eta kendu -Beste taldeentzat galderak
	Informazioa osatzea eta aberastea	Taldeko kideek gai baten inguruan duten informazioa elkarrekin trukatzeko, osatzea eta aberastea	-Aurre-ezagutzak lantzea -Azalpen katea
	Eztabaida antolatua	Talde txikietan edo talde handian eztabaida bat antolatzea, eta beharrezkoa ikusten bada rolak banatzea edota txanda emateko moduak ezartzea.	-Epaiketa
Binaka elkarren artean	Ahozko ko-ebaluazioa	Landutako gai bat ikasleek elkarri ebaluatzen diote, ahoz.	
	Binakako elkarrizketa formala	Elkarri galderak egitea gai baten inguruan aurrez prestatutako galdera batzuetatik abiatuz eta rol jakinak emanaz.	-Kazetaria eta ikerlaria
Banaka taldeari eta galdera erantzunak	Aurre ezagutzak	Irakasleak ikasle batzuei landuko den gai baten inguruan duten informazioa talde osoari azaltzeko eskatu, eta ondoren beste ikasle batzuei informazioa osatzea eskatu.	
	Aurkezpenak	Gai baten inguruko aurkezpenak egin behar dituzte klasean ikasleek, eta kideei galderak egin behar dizkiete.	
	Laburpenak	Landutako gai baten inguruko ahozko laburpena egitea ikasle batek, eta besteek osatzen edo hobetzen laguntzea.	
	Zalantzak argitzea	Ikasleek gai baten inguruko zalantzak egitea talde handian, eta irakasleek erantzun beharrean beste ikasleek erantzutea.	

Kontuan izatekoak

Irakasleak zaindu beharreko prozedura	
<i>Elkarrekin hizketan jartzeak ez du bermatzen euskaraz arituko direnik. Hori dela eta, irakasleek jokabide bat hartzea lagungarria da.</i>	
Irakaslea erdigunean	Irakaslea kanpoan eta tartean
<p>Banaka taldeari hizketan ari direnean irakaslea elkarriketaren erdigunean dago. Ikasleen arteko elkarriketa da baina irakasleren eragina handia da: galderak egin ditzake, zuzenketak egin, beste ikasle batzuei parte hartzea eskatu eta abar. Egoera horietan nahiko erraza da erabilera bermatzea. Beharrezkoa denean, ahalegina eskatu.</p>	<p>Taldetxoetan edo binaka lanean ari direnean irakaslea elkarriketatik kanpo dago. Baina taldez talde ibiltzen bada elkarriketaren parte ere bihur daiteke nahi adina aldiz. Beraz: lanean jarri aurretik euskaraz aritzeko ahalegina eskatu eta adi ibiliko garela adierazi, jarrera aktiboa izan eta taldez talde ibili, beharrezkoa ikusten denean elkarriketetan sartu eta eragin.</p>
<p><i>Ahalegina eskatzeko modua: hainbat ikasleri eta hainbat aldiz euskaraz aritzeko ahalegina eskatu beharko zaie. Mezu egokia modu honetakoak izan daiteke: "ikastetxearen helburuetako bat da zuek euskaraz ere gaitasun ona izatea, eta horretarako asko erabili behar duzue. Horretan lagundu behar dizuet eta horregatik eskatzen dizuet ahalegina".</i></p>	

Jarduera adibideak: hemen aurkeztutakoak dinamika eta jarduera adibide batzuk dira, baina bestea hainbat ere oso egokiak eta eraginkorrak izan daitezke.

Jardueren iraupena: jarduera batzuk denbora tarte laburra eskatzen dute eta beste batzuk luzeagoa. Irakasle bakoitzak erabaki dezake zein dinamika erabili eta zein denbora tarte eskaini.

Zailtasuna kontuan hartu: helburua elkarrekin hizketan askotan jartzea da. Dinamika bat aurrera eramatea zaila bada gutxitan erabiliko da. Hobe gustura edota nahiko erraz egingo diren beste dinamika batzuk erabiltzea.

Zuzentasuna: jardueraren arabera zuzentasunari garrantzia handiagoa edo txikiagoa eman. Adibidez, helburua beraien artean hitz egitea eta gauza batzuk adostea bada, zuzentasunak ez du garrantzia handiegia eta erabilera bermatzea izango da helburua.

Aldiz, taldeari gai baten aurkezpena egin behar badiote, hor zuzentasuna ere garrantzitsua da. Ez tematu zuzentasunarekin eta zailtasunak dituztenean saiatu laguntze.

Zeintzuk egin daitezke online?

Zeregina		Ezaugarriak
Banaka taldeari eta galdera erantzunak	Aurre ezagutzak	Hauak guztiak online egin daitezke. Talde handian egiteko modukoak dira. Ikasle batek hitz egiten du eta beste batek erantzuten dio. Irakasleak dinamika zaindu dezake, txandak eman, ikasle jakin batzuei parte hartzea eskatu eta abar.
Binaka elkarren artean	Ahozko ko-ebaluazioa	Binaka egiteko lanak bidal ditzake irakasleak, baina binaka ari direnean berak ez duenez parte hartuko ezin du bermatu euskaraz arituko direnik. Zer egin daiteke? Binakako zeregin horren azken emaitza talde handian aurkeztea eskatu. Aurkeztu egin behar dutenez prestatu ere egin beharko dute eta hor hizkuntzaren erabilera behar beharrezkoa da. Adibidez: landutako gai baten inguruan aditu-kazetari dinamika bat egin behar dute Galdera batzuk prestatu eta erantzunak landu. Talde handian bien artean dinamika hori aurrera eramango dute.
Taldetxoetan elkarren artean	Adostasunak lortzea	Eztabaida antolatuak online ere egin daiteke.
	Errepasoak egitea	
	Informazioa osatzea eta aberastea	Gainontzeko jardueren kasuan zailagoa da. Talde osoarekin saioa bada taldetxoka ezin dira lanean jarri.
	Eztabaida antolatua	Bi aukera:
	Binakako elkarrizketa formala	<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko puntuan bezala (binaka elkarren artean) taldeka beraien kabuz egin behar duten zeregin bat proposatu eta ondoren talde handian aurkezteko eskatu. <i>Adibidez: Arkatza erdira, Hitz debekatuak, Galderak beste taldeentzat eta abar.</i>
	Aurkezpenak	
	Laburpenak	<ul style="list-style-type: none"> - Modu honetako dinamikak albo batera utzi eta banaka taldeari aurkezteko eta galdera erantzunak bideratzeko dinamikei eman lehentasuna.
	Zalantzak argitzea	

Irakasleei proposamena

Ahozkoari lekua egitea arlo guztietan.

Irakasle bakoitzak erabiliko dituen dinamikak eta eskainiko dien denbora aukeratzea.

Gutxienerako maiztasun bat adostea klaustroan:

Irakasle bakoitzak bere saioan laurden batean gutxienez ahozkoa oinarri duen dinamikaren bat egitea

Mintegien edo zikloen bidez jarraipena egitea

Dinamika adibideen azalpena

		Saioetan erabiltzen diren ariketak
Ariketa urrun	Ikasleek egin behar duten lan bat taldetatik urrun jartzen zaie. Ordezkarri batek orria dagoen lekura joan behar du, irakurri, eta azalpenak ematera itzuli. Behin eta berriz joan daiteke baina berak ezin du idatzi.	DBH1eko hiru ariketa. Urrun jartzen dira eta taldeetako ordezkarriak joan eta etorri dabilta.
Azalpen katea	Taldetxo bakoitzak gai bat landu behar du. Ondoren, ordezkarri bat ondoko taldera doa landutakoa azaltzera. Katea jarraitu daiteke hainbat modurata. Adibidez: bigarren taldeko batek lehen taldekoari entzundakoa kontatuko dio hirugarren taldekoei, gero hauetako batek laugarrenekoei...	Errezetak edota igeriketa nola egiten den.
Ibilbide aldrebestua	Ibilbide edo egitura zehatz bat duen gai batean, nahastu egingo ditugu eta ikasleei eman. Ahoz ondo antolatzea eta besteei azaltzea lortu behar dute.	Probintzia bateko herri batera iristeko pistak (Asteasu, Ondarroa...). Edota uraren ibilbidea osatzen duten elementuak.
Taula osatu eta kendu	Erreparasatu nahi dugun gai baten taula egin arbelean. Ikasleekin batera taula osatu. Ondoren borratu eta berriz hutsa utzi. Taldeka erreparasatu dezatela ezer idatzi gabe. Denbora bat eman ondoren taldeen artean galderak egin.	Kirolen inguruko taula bat osatu taldeka, gero kendu, eta taldeen arteko galderak. Ondoren, DBHn Gerra hotzaren inguruan osatu behar den taula batekin konparatu.
Beste taldeentzat galderak	Gai baten inguruan talde bakoitzak galderak prestatu behar ditu eta beste taldeei egin, Galdera hartzen duen taldeak minutu bat edo izango du erantzuna prestatzeko. Idatzi gabe adostu behar dute eta eman behar dute erantzuna.	
Hitz debekatuak	Gai baten inguruko azalpena eman behar du talde batek, baina gaiarekin zerikusi handia duten hiru hitz ezin dituzte erabili.	Arrautza frijitua, Surfa nola egiten den... Hitz batzuk ezin dira erabili.
Derrigortutako hitzak	Gai baten inguruko azalpena prestatu eta eman behar dute, baina hitz batzuk derrigorrez sartu behar dituzte azalpenean. Behar bada ez dute gaiarekin lotura handirik. Beste taldeetakoek konturatu egin behar dute zein ziren hitz horiek.	
Arkatza erdira	Gai bat landu behar dute baina ezin dute ezer idatzi ondo aztertu eta adostu arte.	Ez dugu ariketarik egin